



LEHEN HEZKUNTZAKO 2. ZIKLOKO ADIERAZLEAK

1. Komunikazio egoerak, berez sortzen direnak edo gidatuak, solaskide ezagun eta ezezagunekin diskurtso ordenatua eta koherentea erabiltzea.
 - 1.1. Baimena eskatzeko formularik arruntenak erabiltzea:

“mesedez”, “faborez”, “utziko didazu?”, utziko zenidake?”, “utzi ahal didazu?”, “utz diezadakezu?” joan naiteke?”, “joan gaitzake?”, “egin dezaket?”, “egin dezakegu?”

 - ZUK - NIRI
 - ZUEK - NIRI
 - ZUEK - GURI
 - ZUEK - HARI
 - ZUK - GURI
 - ZUK - HARI
 - 1.2. Proposamenak egin:

“jolastuko gara?”, “gingo dugu?”, “zer iruditzen zaizue...egiten badugu?”, “egin nahi duzue?”
 - 1.3. Kontakizunak kontatzea (eskolakoak, kiroletakoak...):
 - a.-Denbora: “hasieran”, “ondoren”, “geroago”, “...nean”, “azkenik”, “bukatzeko”...
 - b.-Espazioa: “kanporago”, “barnerago”, “gorago”, “beherago”, “hurbilago”, “urrutiago”, “erdialdean”
 - 1.4. Gonbiteak egitea:

“gonbidatzen zaitut – zaituztet - zaituztegu”
“gonbidatuta zaude - zaudete”
“gonbitea luzatzen dizut - dizuet”
“zatoz - zatozte nire festara”
“etor zaitez - zaitezte nire, gure...ra”
 - 1.5. Jarduerak planifikatu:

Noiz eta non kontuan harturik: orduak esaten eta noiztik noiz arte adierazteko esapideak ere.
Denborazkoak: lehen aipatutakoak eta “atzo”, “bihar”, “etzi”, “herenegun”, “bezperan” modu egokiz erabiltzea.
 - 1.6. Proposamenak egitea, iritzia ematea, adostasuna eta ez adostasuna adieraztea, ziurtatzeko esapideak erabiltzea.

“Nik uste dut”, “Nire ustez”, “Nik pentsatzen dut”, “Nire iritziz”, “Nire proposamena hau da”, “Nik proposatzen dut”, “Diot nik”, “Ados nago zurekin”, “Bat nator zuekin”, “Berdin pentsatzen dut”, “Ez naiz iritzi berekoa”, “Horixe baietz”, “Jakina”, “Bai, noski”
2. Ahozko testuak entzutea eta erreproduzitzea: ideia nagusiak eta bigarren mailakoak. Hiztegia aberastea, ahoz laburtzea.
 - 2.1. Deskribapenak egitea: bezalakoa, hainbat, adina, ...agoa da hori baino.
 - Pertsonenak (kanpotik eta barrutik).
 - Gauzenak (Nolakoak diren esanez).
 - Tokienak (Non dauden eta nolakoak diren adieraziz).



- 2.2. Zerrenda: gauzak eta ekintzak (gutxienez 5 elementu eta gehienez 12).
- 2.3. Prozesuak deskribatzea ordena logikoari jarraikiz:
 - “Lehendabizi, ondoren, jarraituz, ... nean, segidan, bitartean, 5 minutu barru”,
 - “Azkenik”, “bukatzeko”, amaitzeko”
- 2.4. Berriak edo albisteak kontatzea (telebistan edo irratian entzundakoak).
- 2.5. Ipuinak kontatzea egitura errespetatuz:
 - Orainaldiko, iraganaldiko eta geroaldiko formak erabiliz; 1. eta 3. pertsonak singularrean eta pluralean, testuaren koherentzia mantenduz eta birformulatzeko esapideak erabiliz: “honek... esan nahi du”, “dakizuenez”...
- 2.6. Formarik egokienak erabiltzen jakitea ondorengo egoeretan:
 - AGURRAK: “Egun on, bihar arte, ongi izan, baita zuri ere, ikusi arte”.
 - HASERREA: “Bai horixe, bai zera!, pentsatzea ere!, zoaz pikutara, zoaz antzarak perratzerara,…”
 - KORTESIAZKO FORMAK: “mesedez, ez bazaizu inporta, faborez, nola ez ba!, barkatu baina…”
 - HIPOTESIAK EGITEKO ESAPIDEAK: “beharbada, agian, akaso”.
3. Bertsolaritzaren mundura hurbiltzea.
 - Bertsolaritzaren alde ludikoa ezagutzea.
 - Kopla txikia zein den jakitea.
 - Kopla txikiko kanta zahar batzuk ezagutu, buruz ikasi eta abestea.
4. Testu literarioak.
 - Asmakizunak.
 - Esaera zaharrak ezagutzea eta esanahia jakitea.
 - Euskal ipuin klasikoak ahoz kontatzea.
 - Euskal kantuak ezagutzea.
 - Aho korapiloak.
 - Olerkiak ikastea eta asmatzea.
5. Adinari egokitutako testuak antzeztea.
 - 10-15 minutuko antzezlanak antzeztea (testua emanda edo ikasleek asmatutakoa)
 - Euskal txisteak antzeztea.
6. Euskararen lagunarteko hizkera erabiltzea:
 - Kiroletan eta jokoetan.
 - Barre algarak egiteko.
 - Buru kontuak adierazteko.